



Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria
El Lehendakari del Gobierno Vasco

6/2026 Dekretua, maiatzaren 21ekoa, Lehendakariarena, Euskal Diasporaren Legearen aurreproiektua aldez aurretik onartzen duena.

Lehendakariaren maiatzaren 14ko 4/2026 Dekretuaren bidez agindu zen Euskal Diasporaren lege aurreproiektua izapidetzeko prozedura hastea. Proiektu hori izapidetzeko ardurua Lehendakaritzaren Koordinazioaren eta Proiektu Estrategikoen idazkaritza nagusiko Araubide Juridikoaren Zuzendaritzari eman zaio.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedura arautzen duen ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15. artikulua ezartzen duenez, xedapen orokorren egitasmoak idatzitakoan, prozedura hasteko agindua eman duen organoak aldez aurreko onarpena eman beharko die, dagozkion negoziazio, entzunaldi eta kontsulta izapideak egin aurretik.

Horregatik guztiagatik, landutako proiektuaren testua ikusita, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa. – Aldez aurretik onartzea Euskal Diasporaren legearen aurreproiektuaren testua.

Bigarrena. – Dekretu-proiektua egiteko prozedurarekin jarraitzeko agintzea, lehendakariaren maiatzaren 14ko 4/2026 Dekretuan eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean ezarritako izapideen arabera, Gobernu Kontseiluak onar dezan.

Decreto 6/2026, de 21 de mayo, del Lehendakari, por el que se aprueba, con carácter previo, el anteproyecto de Ley de la Diáspora vasca.

Mediante el Decreto 4/2026, de 14 de mayo, del Lehendakari, se ordenó el inicio del procedimiento de elaboración del anteproyecto de ley de la Diáspora vasca. La tramitación de este proyecto ha sido encomendada a la Dirección de Régimen Jurídico de la Secretaría General de Coordinación y Proyectos Estratégicos.

El artículo 15 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General establece que, una vez redactados los proyectos de disposición de carácter general, deberán contar con la aprobación previa del órgano que haya dictado la orden de inicio, antes de evacuar los trámites de negociación, audiencia y consulta que procedan.

Por todo ello, visto el texto del proyecto elaborado,

DISPONGO:

Primero.– Aprobar, con carácter previo, el texto del anteproyecto de Ley de la Diáspora vasca.

Segundo.– Ordenar la continuación del procedimiento de elaboración del proyecto de Decreto, de conformidad con los trámites establecidos en el Decreto 4/2026, de 14 de mayo, del lehendakari, y en la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, a los efectos de su aprobación por parte del Consejo de Gobierno.





Vitoria-Gasteizen,

IMANOL PRADALES GIL

Lehendakaria



XX/2026 LEGEA, 2026KO XXXXXAREN XX(E)KOA, EUSKAL DIASPORARENA

ZIOEN AZALPENA

XXX

ATARIKO TITULUA.– XEDAPEN OROKORRAK.

1. artikulua.– Xedea.
2. artikulua.– Eremu subjektiboa eta diasporizatzearen kontzeptua.
3. artikulua.– Euskal diasporaren estrategia gidatzen duten printzipioak.
4. artikulua.– Helburuak.

I. TITULUA.– EUSKAL DIASPORA.

I. KAPITULUA.– KANPOAN DIREN EUSKAL
HERRITARRAK.

5. artikulua.– Kanpoan diren euskal herritarren eskubideak eta prestazioak.
6. artikulua.– Plataforma birtuala.

II. KAPITULUA.– KANPOAN DIREN EUSKAL
KOMUNITATEAK.

7. artikulua.– Kanpoan diren euskal komunitateen sailkapena.
8. artikulua.– Kanpoan diren euskal komunitateen helburuak.
9. artikulua.– Kanpoan diren euskal komunitateetako kideen eskubideak.
10. artikulua.– Kanpoan diren euskal komunitateetako kideentzako prestazioak.
11. artikulua.– Kanpoan diren euskal komunitateen betebeharrak.

III. KAPITULUA.– KANPOAN DIREN EUSKAL HERRITARRAK ETA EUSKAL
KOMUNITATEAK AITORTZEA ETA ERREGISTRATZEA.

12. artikulua.– Kanpoan diren euskal herritarrak aitortzea.
13. artikulua.– Kanpoan diren Euskal Herritarren Erregistroa.
14. artikulua.– Kanpoan diren euskal komunitateak aitortzea.
15. artikulua.– Kanpoan diren euskal komunitateei aitortza kentzea.
16. artikulua.– Kanpoan diren Euskal Komunitateen Erregistroa.

II. TITULUA.– HARREMANETARAKO
ORGANOAK.

17. artikulua.– Euskal Diasporarekiko Harremanetarako Aholku Batzordea.
18. artikulua.– Euskal Diasporaren Mundu Batzarra.
19. artikulua.– Euskal Diasporaren Batzorde Betearazlea.

III. TITULUA.– EUSKADI
DIASPORIZATZEA.

20. artikulua.– Euskal diasporaren giza kapitala eta kapital soziala, ekonomikoa eta kulturala.
21. artikulua.– Euskal diasporaren artxibo historikoa.



22. artikulua.– Migrazioen interpretazio–zentroa.

23. artikulua.– Euskal Diasporaren Eguna.

IV. TITULUA. – HARRERA-ESTRATEGIA INTEGRALA.

24. artikulua.– Edukia.

25. artikulua.– Kanpoan diren euskal herritarren itzulera.

26. artikulua.– Eskubideak eta prestazioak.

27. artikulua – Euskal Autonomia Erkidegora bizitzera etortzea.

28. artikulua.– Harrera birtuala.

29. artikulua.– Harrera-bulego bateratua.

V. TITULUA.– GOBERNANTZA, KUDEAKETA ETA EBALUAZIOA.

30. artikulua.– Gobernantza-eredua.

31. artikulua.– Sailarteko Jarraipen Batzordea.

32. artikulua.– Finantzaketan laguntzea.

33. artikulua.– Diasporaren arloko politikak kudeatzea.

34. artikulua.– Euskal diasporaren ondarea zaintzea.

VI. TITULUA. – LANKIDETZA-HITZARMENAK.

35. artikulua.– Beste autonomia-erkidego batzuekiko elkarlanerako akordioak.

36. artikulua.– Nazioarteko hitzarmen eta itunak.

LEHEN XEDAPEN IRAGANKORRA. – Euskal Etxeak aitortzea.

BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.– Kanpoan diren Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Aholku Batzordearen osaera.

HIRUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.– Euskal komunitateen ordezkariak Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Aholku Batzordean.

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Legearen arauzko garapena.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Indarrean jartzea.

ATARIKO TITULUA.



XEDAPEN OROKORRAK.

1. artikulua.– Xedea.

Lege honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoek eta euskal gizarteak oro har euskal diasporarekin dituzten harremanak sustatzea, koordinatzea eta indartzea, bai eta harreman horiek erraztuko dituen esparru juridiko eta estrategikoa ezartzea ere.

2. artikulua.– Eremu subjektiboa eta diasporizatzearen kontzeptua.

1.– Lege hau euskal diaspora osatzen duten pertsona eta entitateei aplikatzekoa da:

a) Kanpoan diren euskal herritarrak:

- 1) Atzerrian bizi diren euskal herritarrak, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 7.2 artikuluan aipatzen direnak, bai eta laugarren gradurainoko ondorengoak ere, behezko lerro zuzenean, hala eskatzen badute Espainiako kontsulatu batean edo Eusko Jaurlaritzak kanpoan duen ordezkaritza batean, baldin eta Espainiako nazionalitatea badute edo eskuratzen badute.
- 2) Espainiako gerra zibilaren ondorioz ebakuatu zituzten pertsonak, bai eta atzerrian bizi diren laugarren gradura arteko haien ondorengoak ere, baldin eta euskal herritar izaera politikoa badute edo eskuratzen badute.
- 3) Euskal auzotasun zibila izanik Euskaditik kanpo bizi ohi diren pertsonak, edo are atzerrian bizi ohi direnak ere, baldin eta, azken horien kasuan, Espainiako kontsulatu batean edo Eusko Jaurlaritzak kanpoan duen ordezkaritza batean hala eskatzen badute.
- 4) Euskal herritar izaera politikoa izan eta gero Euskaditik kanpoko udalerriri batean edo atzerrian erroldatzen direnak zirkulazio askeaz baliatuta.

b) Kanpoan diren euskal komunitateak:

- 1) Herrialde bakoitzeko legediaren arabera formalki eraturako pertsona taldeak, Eusko Jaurlaritzak lege honen arabera ofizialki onartuak.
- 2) Euskal komunitate birtualak: Euskadirekin dituzten loturak mantentzeko eta indartzeko asmoz sare eta plataforma informatiko, telematiko eta teknologikoen bidez jarduten eta erlazionatzen diren pertsonen talde informalak.
- 3) Kanpoan diren euskal komunitateetako kide dira ez euskal herritar izaera politikorik eta ez euskal jatorririk ez duten baina Euskadirekiko kidetasuna adierazten duten pertsonak.

2.– Euskal diaspora: kanpoan diren euskal herritar eta komunitateek osatua da.



3.– Euskal komunitate globala: Euskadiko herritarrek eta euskal diasporak osatutako multzoa.

4.– Diasporizatzearen kontzeptua: euskal gizartea eta Euskadiko erakunde guztiak euskal diasporak zer-nolako potentzial humano, kultural eta sozioekonomikoa duen jabetu daitezzen izaten diren ekimen publiko edo pribatuak oro, haren etorkizunari begira eta elkar aberasteko egindakoak. Arauak eta plan estrategikoak diseinatu eta ezartzeko orduan, euskal administrazio publikoek euskal diasporaren ikuspegia hartu dezakete.

3. artikulua.– Euskal diasporaren estrategia gidatzen duten printzipioak.

1.– Printzipio orokorrak:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan eta aurrekontu-baliabideen arabera, lege honen helburuak bete daitezzen bultzatuko egongo dute, Eusko Jaurlaritzako kanpo-ekintzako alorraren koordinazioaren pean.
- b) Euskadik giza aktibotzat eta bere ondare historiko, politiko, kultural eta sozioekonomikoaren funtsezko zatitza hartzen du euskal diaspora, beraren nortasun-ezaugarriak eta herrialde-marka hedatzen baititu, eta Euskadiren kanpoko dinamizatzaile ere bai, aipatutako eremuetan.

2.– Printzipio espezifikoak:

- a) Lidergoa.
- b) Transbertsala izatea eta gainerako politika publikoekin bat etortzea.
- c) Epe ertaineko eta epe luzeko ikuskera izatea.
- d) Alderdikeriarik ez izatea.
- e) Bizitza politikoan, sozialean, kulturean eta ekonomikoan parte hartzea.
- f) Arreta pertsonengan jarrita jardutea.
- g) Eskubideetan oinarritzea.
- h) Politika publikoak diasporaren tipologia bakoitzera egokitzea.
- i) Eraginkortasunean, efizientzian, gardentasunean eta etengabeko ebaluazioan oinarritutako gobernantza.
- j) Ekitatea eta inklusioa.

4. artikulua.– Helburuak.

Lege honen helburuak hauek dira:

- a) Euskal komunitate globala eratzea.
- b) Euskal diaspora osatzen duten pertsona eta entitateak identifikatzea eta lotzea.
- c) Euskal diaspora eta Euskadi harremanetan izateko eta lankidetzan aritzeko bide egonkorak erraztea.
- d) Euskal diasporaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoen arteko lotura indartzea.
- e) Euskal diasporari kasu egiteko eta harekiko harremanak indartzeko politika egokiak antolatzea.



- f) Kanpoan diren euskal herritarrak Euskadiko gizarte-, kultura-, ekonomia- eta politika-bizitzan parte hartzera bultzatzea eta parte-hartze horri bide ematea.
- g) Kanpoko euskal komunitateak indartzen laguntzea, haien barne-kohesioa eta ekintza asoziatiboen eraginkortasuna bultzatuz, belaunaldien arteko erreleboa bultzatuz eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatuz parte-hartze politiko, asoziatibo, kultural, sozial eta ekonomikoko eremu guztietan.
- h) Euskal diaspora osatzen dutenei laguntza eta babesa ematea euskal erakundeen eskumenen esparruan.
- i) Euskadiren kanpo-irudia, nortasun propioa, euskararen ezagutza, haren kultura eta potentzial ekonomiko, turistiko eta komertzialaren ezagutza sustatzea, euskal diasporarekin lankidetzan arituz.
- j) Bide ematea euskal diasporaren eta harrera-gizartearen, hango erakundeen eta hainbat eremutako eragileren arteko harreman politiko, ekonomiko, sozial eta kulturei.
- k) Euskal diasporaren lana zabaltzea eta hura aintzat hartzen eta aitortzen dela zaintzea.
- l) Euskal gazteen artean nazioarteko mugikortasuna sustatzea.
- m) Talentuaren zirkulazioa bultzatzea, euskal komunitate globalaren mugikortasunari lagunduz.
- n) Kanpoan diren euskal komunitateetako kideei Euskal Autonomia Erkidegora bizitzera etortzen laguntzea, hala egin nahi badute.
- o) Digitalizazioan aurrera egitea eta euskal diasporarekiko harremanak eta politika publikoak aukera teknologiko berrietara egokitzea.
- p) Indarrean dagoen araudiak ezartzen duen beste edozein.

Lege honetan jarritako helburu guztiak emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioari jarraituz garatu behar dira, eta esparru politikoan, sozialean, kulturean eta ekonomikoan modu transbertsealean aplikatzen dela bermatu behar da.

I.TITULUA.

EUSKAL DIASPORA.

I. KAPITULUA.

KANPOAN DIREN EUSKAL HERRITARRAK.

5. artikulua.– Kanpoan diren euskal herritarren eskubideak eta prestazioak.

Oro har, eskubide eta prestazio hauek aitortzen zaizkie kanpoan diren euskal herritarrei, aplikatu beharreko araudiak zehazten dituen baldintzekin. Era berean, herritar horiek eskubide hauek dituzte, berdintasun-baldintzetan:

1.– Gizarte-arloko eskubideak.

- a) Parte-hartze soziala izatea eta herritartasun aktiboa baliatzea, eta, bereziki, zuzenean eragiten dieten politika publikoetan parte hartzea.
- b) Euskadiko errealitateari buruzko interes politiko, instituzional, sozioekonomiko eta kultureko informazioa jasotzea.



- c) Euskadiko informazio soziolaborala jasotzea eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren programetan sartzea.
- d) Internet sareko prestakuntza-programetan parte hartzea hezkuntza-maila guztietan.
- e) Euskadin aldi baterako egiten dituzten egonaldietan osasun-zerbitzu publikoak baliatzea.
- f) Aukera berdinak izatea eta diskriminaziorik ez jasatea.
- g) Eskariak egitea eta Arartekora jotzea.
- h) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean sustatutako jarduketetan parte hartzea.
- i) Genero-indarkeriako kasuetarako prestazioak izatea.
- j) 2030 Agendako garapen jasangarriko helburuak betetzeko zereginetan parte hartzea
- k) Euskadira itzuli behar badute, beren itzulera kudeatzeko antolatzen diren programetan eta ekimenetan parte hartzea.
- l) Indarrean dagoen araudiak ezartzen duen beste edozein.

2.– Kulturaren arloko eskubideak.

- a) Euskara ikasteko ikastaroak egitea.
- b) Gaur egungo kultur produkzioa eskura izatea.
- c) Euskal diasporaren kultur adierazpenak ikusaraztea.
- d) Diasporaren segmentu bakoitzaren arabera programatutako kultur ekitaldi eta jaialdiak sustatzea.
- e) Instituzionalizatzea, diasporaren aholku-batzordeak sortuz.
- f) Teknologia digitalak erabiltzea diaspora kultur esparruekin eta, bereziki, euskararekin konektatuta egoteko.
- g) Ikasle ohien sareak kultur programetan sartzea.
- h) Euskadira bisitak egiteko eta sustraiak bilatzeko kanpainen parte hartzea, bereziki euskal komunitateetako kideentzat diren kanpainen.
- i) Bizitza kulturalean sartzea diaspora kontzientziatzeko haren inplikazio handiagoa eta balizko itzulera erraztuko dituzten aukerez eta estrategiez.
- j) Atzerrian Euskadi marka sustatzeko ekimenetan parte hartzea.
- k) Euskal diasporak emakumeen eta gizonen berdintasun-baldintzetan parte hartzea kulturaren, haien ordezkaritza orekatua dela bermatuz eta diskriminazio mota oro ezabatuz.
- l) Indarrean dagoen araudiak ezartzen duen beste edozein.

6. artikulua.– Plataforma birtuala.

Eskubide eta prestazio horiek gauzatzen laguntzeko, plataforma digitalak ezarriko dira etengabeko interakzioa sustatzeko euskal diasporaren eta Euskadiren artean.

II.KAPITULUA.

KANPOAN DIREN EUSKAL KOMUNITATEAK.

7. artikulua.– Kanpoan diren euskal komunitateen sailkapena.

Lege honen ondorioetarako, eta 2.1.b) artikuluan xedatutakoaren babesean, kanpoan



diren euskal komunitateek entitate hauek biltzen dituzte:

- a) Euskal etxeak eta haien federazioak.

Irabazi-asmorik gabeko entitateak dira, Euskaditik kanpo finkatuak, eratuta dauden lurraldean nortasun juridikoa dutenak, Eusko Jaurlaritzak lege honen arabera ofizialki aitortuak eta lege honen 4. eta 8. artikuluetan ezarritako helburuak eta xedeak dituztenak.

- b) Irabazi-asmorik gabeko beste entitate batzuk.

Euskal diasporako kideek osatutako entitate eta organismoak dira, helburu nagusizat euskal diasporaren errealitatea, ekarpena, historia eta idiosinkrasia aztertzea eta zabaltzea daukatenak estatutuetan aitortuta eta egoitza soziala Euskaditik kanpo daukatenak, bai eta beste erakunde batzuei lotutako euskal ikasketetako zentroak edo antzekoak ere.

- c) Komunitate birtualak.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidez eta lege honen 4. eta 8. artikuluetan ezarritako helburu eta xedeekin bat etorritako sareak, Euskal Komunitate Globalaren konektibitatea eta interakzioa sustatzekoak.

- d) Erregelamendu bidez erabakitzen den beste edozein entitate.

8. artikulua.– Kanpoan diren euskal komunitateen helburuak.

Lege honen ondorioetarako, hauek jotzen dira kanpoan diren euskal komunitateen helburutzat:

- a) Kanpoan den euskal komunitatea indartzen laguntzea, haren barne-kohesioa eta ekintza asoziatiboen eraginkortasuna bultzatuz.
- b) Euskadirekin dituzten loturak atxikitzea eta indartzea, euskal komunitate horietako kideek beren balioak atxikitzen, lantzen eta transmititzen jarraitu ahal izan dezaten.
- c) Euskadiko errealitate sozial, kultural, linguistiko, ekonomiko eta instituzionalaren ezagutza sustatzea, entitateko pertsonentzako dibulgazio- eta sustapen-jarduerak bultzatuz eta Euskadik dituen potentzialtasunak ezagutaraziz entitatearen ingurune sozioekonomikoan.
- d) Euskal komunitateak dituzten herrialdeekiko, haien erakundeekiko eta gizarte-eragileekiko harremanei bide ematea, harreman sozialei eta kulturei bereziki, Eusko Jaurlaritzaren ordezkartzeekin koordinatuta, halakorik badago.
- e) Haien jardun-eremu geografikoan dauden euskal diasporako pertsonen laguntzea, kasu egitea eta sorostea, ahal den neurrian.
- f) Euskararen ezagutza eta erabilera bultzatzea eta euskal sorkuntza-lan eta ekoizpen kulturalak zabaltzen laguntzea, bai euskal komunitateetako kideen artean, bai harrerako gizarteetan, Etxepare Euskal Institutuarekin eta Euskadik haien jardun-eremu geografikoan kanpoan dituen ordezkartzeekin lankidetzan jardunez.
- g) Euskal diasporak historian zehar sortutako kultura-ondarea zaintzea, balioestea eta zabaltzea.
- h) Gazteek kanpoan diren euskal komunitateetan parte hartu dezaten eta barnean sar daitezen sustatzea, euskal kulturarako, hizkuntzarako eta gizarterako



sarbidea bermatuz, eta haien parte-hartze aktiboa eta orekatua bultzatuz, koordinazio- eta zuzendaritza-organoetan batez ere.

- i) Emakumeek kanpoan diren euskal komunitateen bizitza asoziatiboan benetan parte hartu dezaten sustatzea, koordinazio- eta zuzendaritza-organoetan batez ere, eta aurrera eraman beharreko jarduketa eta programetan berdintasun-balioak sustatzea.
- j) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiek ematen dituzten aukerak erabiliz, euskal komunitateek helburuak lortzen lagunduko duten ekimenak bultzatzea.
- k) Euskal diasporari laguntzea, kasu egitea eta dagoen gizarteetan integratzeko bidea erraztea.
- l) Beren komunitateko pertsoneri laguntzea, Euskadira itzuli edo bizilekua hona aldatu nahi badute.
- m) Kanpoan diren euskal komunitateek egoki iritzitako beste edozein helburu, beren helburuen eta lege honetan xedatutakoaren arabera dena.

9. artikulua.– Kanpoan diren euskal komunitateetako kideen eskubideak.

Oro har, eskubide eta prestazio hauek aitortzen zaizkie kanpoan diren euskal komunitateetako kideei, aplikatu beharreko araudiak zehazten dituen baldintzekin. Era berean, pertsona horiek eskubide hauek dituzte, berdintasun-baldintzetan:

1.– Gizarte-arloko eskubideak:

- a) Euskal diasporarentzat berariaz interesgarritzat jotzen diren gaietan Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoek ematen dituzten xedapen eta ebazpen guztiei buruzko informazioa jasotzea, estatutuetan jasotako helburuen arabera.
- b) Euskal gizarte-bizitza partekatzea eta hura hedatzen laguntzea bizi diren lurralde-eremuan.
- c) Erakunde publikoekin lankidetzan aritzea kanpoan bizi diren pertsonen aldeko ekintza sozio-asistentzialak eta sanitarioak bultzatzeko, haien politika eta erregulazioekin bat etorritik.
- d) Erreferentziarako entitate gisa parte hartzea Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo garatzen dituen ekintzetan, ezarrita dauden lurralde-eremuaren barruan, baldin eta jarduerak zerikusia badu entitatearen estatutuetan jarritako helburuekin.
- e) Euskal diasporarentzat interes soziala duten gaietan parte hartzea, eztabaidatuz eta aholkatuz, euskal komunitateen ordezkartza-organoen bitartez.
- f) Emakumeek eta gizonek baldintza berak dituztela garatzea euskal diasporari lotutako jarduketa sozial guztiak, haien parte-hartzea orekatua dela bermatuz eta diskriminazio mota oro ezabatuz.

Erregelamendu bidez zehaztuko da eskubide horiek nola baliatuko diren eta euskal komunitateek Euskadi eta bertako jendea hobetzea helburu duten ekintza sozialetan nola parte hartuko duten.

2.– Kulturaren arloko eskubideak:

- a) Euskal kulturaren esparruen ezagupenean eta azterketan parte hartzea.



- b) Beren komunitateetan euskara ezagutu eta zabaltzea.
- c) Euskadiko kultura-garapenari buruzko informazioa jasotzea eta garapen hori irispidean izatea, eta euskal kultura sustatzeko ekimenen formulazioan parte hartzea.
- d) Euskadiko liburutegi, baliabide eta artxiboetan sarbidea izatea.
- e) Euskal Autonomia Erkidegoko titulartasun publikoko komunikabideetan eta gizarte-hedabideetan lankidetzan aritzea eta parte hartzea.
- f) Euskararen eta euskal kultura eta tradizioen gozamina zaintzera eta sustatzera bideratutako kultur jarduerak eta ikuskizunak bultzatzen laguntzea.
- g) Euskadiren turismo-aukerak sustatzea eta hedatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko politikekin eta araudiekin bat etorriz, eta aukera horiek hedatzeko eragile gisa jardutea.
- h) informazioaren eta komunikazioaren teknologien arloko esperientziak eta ezagutzak trukitzea. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak informazioa eta ezagutza trukatzeko egiturak jarriko ditu euskal diasporarentzako berarentzako plataforma digitalen bidez.
- i) Euskal ondarea zaintzea eta zabaltzea beren lurralde-eremuan.
- j) Interes kultureko gaietan parte hartzea, kanpoan diren euskal komunitateen ordezkari-organoen bitartez.
- k) Diasporak emakumeen eta gizonen berdintasun-baldintzetan parte hartzea kulturaren, haien ordezkari-orekatua dela bermatuz eta diskriminazio mota oro ezabatuz.

3.– Ekonomia-arloko eskubideak:

- a) Euskadiko egoera ekonomikoari buruzko informazioa jasotzea.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoko eragile ekonomiko eta sozialekin harremanetan egotea.
- c) Eusko Jaurlaritzarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko eragile ekonomikoekin lankidetzan aritzea, Euskadiren garapen ekonomikoa eta proiektio ekonomikoa kanpoan sustatzen dituzten ekonomia- eta enpresa-jarduerak bultzatzeko.
- d) Euskal diasporaren eta Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten enpresen arteko harreman ekonomikoak sustatzea.
- e) Foro ekonomikoetan parte hartzea eta Euskadiren garapenean eta aurrerabidean eta Euskadik nazioartean duen proiektio ekonomikoan lagungarriak diren ekimenak formulatzea.
- f) Interes ekonomikoko gaietan parte hartzea, kanpoan diren euskal komunitateen ordezkari-organoen bitartez.

10. artikulua.– Kanpoan diren euskal komunitateetako kideentzako prestazioak.

1.– Gizarte-arloan:

- a) Kanpoan euskal komunitate berriak eratzen laguntzeko jarduketak. Euskal Autonomia Erkidegoak Euskaditik kanpo entitate berriak eratzea sustatuko du euskal herritarren kokapenak hala eskatzen duen lekuetan, eta laguntza eta aholkularitza eskainiko du eratze horietarako.
- b) Banakako prestazio sozio-asistentzialak.



Euskal Autonomia Erkidegoak, bere politika eta araudiekin bat etorritz, behar diren bitartekoak jarriko ditu Euskaditik kanpo bizi direnei banakako eta aparteko laguntza emateko premia larri-larria edo gizarte-bazterkeriako arriskua dagoenean.

- c) Kanpoan diren euskal komunitateen laguntza-ekimenen aldeko prestazioak.

Euskal Autonomia Erkidegoak zehaztuko du zer laguntza emango zaizkien euskal komunitateei eta zentro laguntzaileei haien jardun-eremuan bizi diren euskal herritarrei laguntzeko; arreta berezia jarriko da adinekoetan, emakumeetan —egoera jakin batzuetan kalteberagoak direla aintzat hartuta— eta premia larri-larria edo gizarte-bazterkeriako arriskua dutenetan.

- d) Kanpoan diren euskal komunitateek sustatutako gizarte-jardueren aldeko prestazioak.

Euskal Autonomia Erkidegoak zehaztuko du zer laguntza- eta lankidetzaneurri izango diren kanpoko euskal komunitateetako kideak bizi diren lurraldean hobeto integratzeko eta hobeto parte hartzeko komunitateok sustatzen dituzten ekintzetarako.

- e) Genero-berdintasunaren arloko jarduketak.

Euskal Autonomia Erkidegoak kanpoan bizi diren emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatuko du, eta horretarako laguntza-neurriak zehaztuko ditu.

- f) Zerbitzuak emateko hitzarmenak.

Euskal Autonomia Erkidegoak zerbitzuak emateko lankidetzahitzarmenak egin ditzake kanpoan diren euskal komunitate aitortuekin, baldin eta hitzarmen horien gaian egiaztatzen bada kualifikatuta daudela eta esperientzia dutela gai kolektiboan kudeaketan eta dinamikoak direla.

2.– Kulturaren arloan:

- a) Hizkuntzaren eta kulturaren arloko sustapen-prestazioak.

Euskal Autonomia Erkidegoak, Etxepare Euskal Institutuaren laguntzarekin, Euskadiko hizkuntza, kultura eta tradizioak hobeto ezagutzeko zerbitzu didaktikoak eta ikus-entzunezkoak antolatuko ditu.

- b) Argitalpen-funtsa.

Euskal Autonomia Erkidegoak bere argitalpen-funtsak jarriko ditu kanpoan den euskal komunitatearen eskura, Euskadiren historia, artea, hizkuntza eta errealitate soziala ezagutzen laguntzeko.

- c) Prestakuntza.



Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenen esparruan, Eusko Jaurlaritzak euskal hizkuntzaren, historiaren eta kulturaren ezagutza eta prestakuntza sustatuko ditu kanpoko euskal komunitatea asentatuta dagoen lurraldeetan.

d) Euskal komunitateen komunikabideak.

Euskal Autonomia Erkidegoak sustatuko du bere lurralde-eremuko komunikabideek euskal diasporarentzako informazio- eta hedapen-ekimenak garatzea, eta kanpoan diren euskal komunitateek garatutako komunikazio-ekimenak bultzatuko ditu.

e) Trukeak.

Euskal diasporarekiko hezkuntza- eta kultura-arloko harremanak eta trukeak sustatuko ditu Euskal Autonomia Erkidegoak, Euskadiko errealitate sozial, ekonomiko eta kulturala ezagutzeko modua emateko.

f) Plataforma teknologikoa.

Euskal Autonomia Erkidegoak kideen artean komunikatzeko, informatzeko eta ezagutza trukatzeko plataforma teknologiko bat jarriko du kanpoan den euskal komunitatearen eskura. Gainera, informatika-aplikazioen erabilera sustatuko du kanpoan diren euskal komunitateen kudeaketarako, administrazioarako, kontabilitaterako eta komunikazioetarako.

g) Ondarea zaindu eta babesteko jarduketak.

Euskal Autonomia Erkidegoak kanpoan diren euskal komunitateen kultura-ondarea zaintzen eta kontserbatzen lagunduko du, eta adi egongo da ondare hori nora doan komunitateak deseginez gero.

Araudiak aukera ematen duen kasuetan, Euskal Diasporaren Artxibora bideratuko da kultura-ondarea eta, bereziki, ondare dokumentala, soinuduna eta immateriala, baldin eta, zaindu ahal izateko, Euskadin kontserbatu behar bada, kasuaren arabera, eta hark zainduko, katalogatuko eta hedatuko du.

3.– Ekonomiaren arloan:

- a) Eusko Jaurlaritzak Euskadin kokatutako euskal enpresaburuen eta atzerrian bizi direnen arteko harremanak sustatu eta erraztuko ditu, planen eta ekintzen bidez, euskal diasporaren ekintza-, ekonomia- eta enpresa-ahalmena Euskadikora batu dadin sustatzeko.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoak foroak, azokak eta gainerako jardueraprogramak antolatzea sustatuko du Euskadiko errealitate ekonomikoari buruzko ezagutza eta haren nazioartekotzea eta garapena bultzatzeko.
- c) Euskal Autonomia Erkidegoak, kanpoan diren euskal komunitateekin lankidetzan jardunez, kanpoan diren euskal herritarren prestakuntza arautua, lanerakoa eta etengabea sustatuko du.
- d) Euskal Autonomia Erkidegoak finantza-arloko bere jarduketetan parte hartzen lagunduko dio euskal diasporari.



11. artikulua.– Kanpoan diren euskal komunitateen betebeharrak.

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek bultzatutako plan eta programetan laguntzea.
- b) Botoa emateko eskubidea duten kanpoko euskal herritarrek Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren hauteskundeetan parte hartu dezaten bultzatzea.
- c) Euskadin euskal diasporaren egoeraren berri emateko jardueretan laguntzea, dauden komunikabideen eta plataformen bidez.
- d) Gazteen parte-hartze aktiboa sustatzea mugimendu asoziatiboak aurrera jarrai dezan.
- e) Euskal erakundeek antolatutako plan, programa, misio eta ordezkartzetan aktiboki parte hartzea.
- f) Kideen artean euskal kultura atxikitzen eta hedatzen laguntzea.
- g) Eusko Jaurlaritzak eta gainerako euskal erakunde publikoek bidaltzen dieten informazioa kideen artean zabaltzea.
- h) Euskadiren kanpo-proiektzioa aktiboki bultzatzea.
- i) Ondare dokumentalaren, immaterialaren eta higigarriaren inbentarioa egitea, hura ezagutzeko, kontserbatzeko eta zabaltzeko.

III.KAPITULUA.

KANPOAN DIREN EUSKAL HERRITARRAK ETA EUSKAL KOMUNITATEAK AITORTZEA ETA ERREGISTRATZEA

12. artikulua.– Kanpoan diren euskal herritarrak aitortzea.

Euskal erakunde publikoek beren gobernu-lanaren eta politika publikoen hartzaitzat aitortzen dituzte kanpoan diren euskal herritarrak, indarrean dagoen legediak autonomia-erkidegoei esleitu dizkien eskumenen arabera. Aitorpen horrek berekin dakar kanpoan diren euskal herritarrak eskubideen subjektutzat hartzen direla euskal erakunde publikoek eskumenak dituzten eremuetan.

13. artikulua.– Kanpoan diren Euskal Herritarren Erregistroa.

1. Kanpoan diren Euskal Herritarren Erregistroa sortzen da. Bertan, 2.1.a) artikuluan aipatzen direnek eman dezakete izena, beren borondatez.
2. Kanpoan diren Euskal Herritarren Erregistroa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean kanpo-harremanen arloan eskumena duen sailari atxikita egongo da, eta hari dagokio erregistroa arautzea, sortzea eta mantentzea.
3. Erregistro horri nahikoa publizitate emango zaio, eta honetarako balioko du: kanpoan diren euskal herritarrak identifikatzeko eta lotzeko; arreta- eta komunikazio-ekimenak eta -programak garatzeko; bai eta itzulerarekin lotutako ekimenak garatzeko ere, lege honen arabera dagozkien eskubideak garatuz.
4. Erregistroan, datu pertsonalak babestearen arloan indarrean dagoen araudia beteko da.

14. artikulua.– Kanpoan diren euskal komunitateak aitortzea.



1. Kanpoan diren euskal komunitateak kanpo-harremanen arloan eskumena duen sailaren ebazpen baten bidez aitortuko dira, komunitate horiek aitortza alde aurretik eskatuta, eta horretarako erregelamendu bidez zehazten den prozeduraren arabera.
2. 7. artikuluan aurreikusitako entitateek, kanpoko euskal komunitatetzat aitortuak izateko eta lege honetan araututako onurak eta prestazioak lortu ahal izateko, egiaztatu beharko dute baldintza hauek betetzen dituztela:
 - a) Behar den bezala eratu izana, dagoen tokian indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera.
 - b) Jarduerak garatzeko behar beste giza baliabideren eta baliabide materialen antolamendua izatea, erregelamendu bidez ezarritakoaren arabera.
 - c) Estatutuetako oinarrizko helburuetako bat izatea Euskadirekin eta Euskal Komunitate Globalarekin lotura kulturalak, sozialak edo ekonomikoak atxikitzea, eta bazkideek horretarako borondatea adierazi izana.
 - d) Barne-egitura, -antolaketa eta -funtzionamendu demokratikoak izatea, erabakiak hartzeko prozesuetan eta zuzendaritza- eta koordinazio-organoetan bazkideek modu orekatuan parte hartzen dutela bermatzeko eta ziurtatzeko.
3. Kanpoan diren euskal komunitate aitortuek lege honetan xedatzen dena beteko dute beren jardunean.

15. artikulua.– Kanpoan diren euskal komunitateei aitortza kentzea.

Kanpo-harremanen arloan eskumena duen sailak aitortza ken diezaieke kanpoan diren euskal komunitateei, kontraesaneko administrazio-espeditatea hasi ondoren emandako ebazpen baten bidez, kasu hauetan:

- a) Lege honen helburuak eta baldintzak ez betetzea.
- b) Luzaroan jarduerarik ez izatea.
- c) Inskripzioan jasota dauden datuak edo dokumentuak faltsuak direla deklaratzeko epai judizial irmo batean.
- d) Behar bezala eratzeko organismo eskudunek bere garaian emandako nahitaezko baimenak ezeztatzea edo eraginkortasuna galtzea.
- e) Dirulaguntzen arloan indarrean dagoen araudiaren aurkako ekintzak edo egin beharrekoak ez egitea.
- f) Zuzendaritza- edo koordinazio-organoei lotutako pertsonak prozesu judizialean murgilduta egotea eta arriskua izatea horrek entitatearen irudiari eta izen onari kalte egiteko, eta entitateak neurririk ez hartzea egoera konpontzeko.
- g) Kanpoan diren Euskal Komunitateen Erregistroan eskatutako datuak ez eguneratzea.
- h) Desegitea.
- i) Entitateak berak eskatzea.
- j) Erregelamendu bidez zehazten diren beste batzuk.

16. artikulua.– Kanpoan diren Euskal Komunitateen Erregistroa.

1. Kanpoan diren Euskal Komunitateen Erregistroa publikoa izango da, eta lege honen 14. artikuluan aitortutako entitateak ofizios inskribatuko dira.
2. 2.1.b) 2) artikuluko euskal komunitate birtualak ere erregistra daitezke, erregelamendu bidez ezartzen denaren arabera.



3. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean kanpo-harremanen arloan eskumena duen sailari dagokio erregistroa arautzea, sortzea eta mantentzea.
4. Erregistroaren antolakuntza eta funtzionamendua erregelamendu bidez finkatuko dira.

II.TITULUA.

HARREMANETARAKO ORGANOAK.

17. artikulua.– Euskal Diasporarekiko Harremanetarako Aholku Batzordea.

1. Lege honetan jarritako helburuak betetzeko, Euskal Diasporarekiko Harremanetarako Aholku Batzordea sortzen da. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen aholku-organo bat izango da, eta kanpo-harremanen arloan eskumena duen sailari atxikita egongo da.
2. Hona hemen Euskal Diasporarekiko Harremanetarako Aholku Batzordearen eskudantziak:
 - a) Euskal diasporaren bost urteko estrategia prestatzea.
 - b) Euskal diasporari buruzko xedapenak promulgatzeko edo aldatzeko proposamena egitea Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeei.
 - c) Txostenak egiteko enkargua egitea, sailtako arloen eta eremu geografikoen arabera.
 - d) Lege honetako aurreikuspenak betetzen diren ebaluatzea.
 - e) Urteko programen plangintza eta betearazpena onartzea.
 - f) Ordenamendu juridikoak esleitzen dion beste edozein.
3. Euskal Diasporarekiko Harremanetarako Aholku Batzordea hauek osatuko dute:
 - a) Eusko Jaurlaritzako lehendakaria, edo haren eskuordetza duena; batzordeburua izango da.
 - b) Kanpo-harremanen arloko arduraduna, edo haren eskuordetza duena; batzordeburuordea izango da.
 - c) Diasporarekiko harremanetarako arloko arduraduna, edo haren eskuordetza duena; idazkaria izango da.
 - d) Eusko Legebiltzarreko bi kide, Legebiltzarreko osoko bilkuran hautatuak.
 - e) Euskal diasporan adituak diren bi pertsona independente, lehendakariak izendatuak.
 - f) Unibertsitateen esparruko ordezkari bat.
 - g) Euskaltzaindiaren ordezkari bat.
 - h) Eusko Ikaskuntzaren ordezkari bat.
 - i) Emakunderen ordezkari bat.
 - j) Eudelen ordezkari bat.
 - k) Sailtako arlo hauekiko ordezkari bana: kultura; turismoa; hezkuntza; gizarte-ongizatea; enplegua eta lana; etxebizitza; ogasuna, eta industria.
 - l) Kanpoan diren euskal komunitateetako bost kide, organo hau arautzen duen erregelamenduaren arabera.



4. Aholku Batzordearen barruan lantaldeak eratu daitezke, haren zereginak hobeto bete daitezzen.
5. Aholku Batzordea urtean behin bilduko da, gutxienez.
6. Euskal Diasporarekiko Harremanetarako Aholku Batzordearen antolaketa eta funtzionamendua erregelamendu bidez finkatuko dira.

18. artikulua.– Euskal Diasporaren Mundu Batzarra.

1. Euskal komunitateak, erakundeak eta oro har euskal gizartea osatzen dituzten pertsonen eta entitateen arteko topaketa eta lankidetzak sustatzeko, Euskal Diasporaren Mundu Batzarra egingo da gutxienez bost urtean behin.
2. Batzarraren antolaketa eta funtzionamendua erregelamendu bidez finkatuko dira.
3. Batzarrean izandako eztabaidetatik ateratzen diren konklusioak dokumentu batean bilduko dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean kanpo-harremanen arloko eskumena duen sailari helaraziko zaizkio, kontuan hartu ditzan euskal diasporarekiko harreman-politiken esparru estrategikoa sortzeko. Estrategia hori, azkenik, Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak onartu beharko du.

19. artikulua.– Euskal Diasporaren Batzorde Betearazlea.

1. Euskal Diasporaren Batzorde Betearazlea sortzen da, programen kudeaketa tekniko eta etengabeko jarraipena koordinatzeko.
2. Euskal Diasporaren Batzorde Betearazleak bilera telematikoa edo aurrez aurrekoa egingo du hiru hilean behin, gutxienez.
3. Batzordean, teknikariek, adituek eta programaren arduradunek parte hartuko dute, baita euskal diasporaren ordezkariak ere.
4. Haren osaera eta funtzionamendua erregelamendu bidez zehaztuko dira.

III.TITULUA.

EUSKADI DIASPORIZATZEA.

20. artikulua.– Euskal diasporaren giza kapitala eta kapital soziala, ekonomikoa eta kulturala.

1. Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoek eta, bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak euskal diasporan dauden balioak aitortzera eta zabaltzera bultzatuko dute, hala nola euskal herritar guztien arteko batasuna, aniztasuna eta beren euskaltasuna bizitzeko askotariko moduak. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoek, transbertsalitate-printzipioaren bidez, duten balioa eman behar diete hala euskal diasporak Euskadiri egiten dion ekarpen historikoari nola oraingo errealitateari eta diasporak Euskadirentzat duen potentzialari.
2. Hala, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak hainbat ekimen lagunduko ditu helburu hauekin:
 - a) Euskal diaspora Euskadiren etorkizunarekin identifikatu, lotu eta konprometitzea giza, gizarte, ekonomia eta kultura mailan.



